La compagnie l'atelier
Fabrique de la scène
Affamée théâtre le labo

Du 8 au 15 juin 2024

2024ko ekainaren 8tik 15era

# Festival en créations
# Sorbidean Festibala



Théâtre — Musique — Danse
Cirque — DJ Set
Parc Eihartzea Hasparren

Antzerkia — Musika — Dantza
Zirkua — DJ Set — Hazparneko
Eihartzeko parkean

# Le Festival en créations

La Fabrique Affamée vous invite à redécouvrir le parc Eihartzea à Hasparren ; spectacles en création sous chapiteau, musique sous les arbres, ateliers, rencontres avec les artistes autour du bar, partenariats avec des associations locales.

## Restitutions des ateliers La Fabrique Affamée

Depuis 2016, La Fabrique Affamée mène des ateliers hebdomadaires de théâtre, de musique et de chant à Hasparren. Cette année, 20 affamés ont travaillé chaque semaine pour apprendre à jouer. Se livrer en public est une étape importante dans l'apprentissage et surtout, surtout un rand moment de plaisir.

La Fabrique Affamée, compagnie de théâtre installée à Hasparren depuis 2014, vous invite à pousser les portes de son chapiteau et porter un autre regard sur le parc Eihartzea. Durant une semaine, des artistes présenteront des étapes, des moments, des premières, des explorations de leurs nouvelles créations. C'est le pari de ce festival. Faire rencontrer le public et les artistes au moment de leur création. Un moment fragile, mais aussi un moment où tout est possible, où l'invention, la folie ont toute leur place. Une occasion rare de venir découvrir la naissance d'un projet, les hésitations, la recherche artistique.
Plus que des spectacles, nous voulons créer une rencontre autour d'un spectacle. Entre ceux qui le fabriquent et ceux qui le regardent et en sont touchés. Ainsi, les portes du parc seront ouvertes de 9 h à 23 h avec toujours quelqu'un pour vous offrir un café, un thé, et plus si affinités...

# Sorbidean Festibala

La Fabrique Affamée konpainiak gonbidatzen zaitu Hazparneko Eihartzeko parkeaz gozatzera, baita ere sorbidean diren ikusgarriak ikustera xapito azpian, musika entzutera arbola azpian, lantegietara, artisten ezagutzera ostatu xokoan, tokiko elkarteekin egin partaidetzen karietara.

## Antzerki lantegien emanaldia La Fabrique Affamée

2016az geroztik, La Fabrique Affamée konpainiak aste guziez antzerki, musika eta kantu lantegiak proposatzen ditu Hazparnen. Aurten 20 bat pertsona lanean ari izan da urte guzian, antzerkian ikasteko. Publikoaren aitzinean aritzea memento garrantzitsua da ikasteko bide horretan, eta sustut, sustut, plazer handiko mementoa.

La Fabrique Affamée antzerki konpainia Hazparnen plantatua dela 2014az geroztik, eta bere xapitora gonbidatzen zaitu Eihartzeko parkea beste begi batzuekin ikusteko. Aste batez artista zenbaitek beren sorkuntzen etapak erakutsiko dituzte, zatiak, entseguak, esplorazioak. Hori da gure festibalaren parioa. Publikoak eta artistek topo egin dezaten sorkuntza mementoan. Memento delikatua da, baina ere dena posible den mementoa, non sormenak eta erokeriak tokia baduten. Proiektu baten sortzea, dudak eta
ikerketa artistikoak ezagutzeko parada ezin hobea. Ikusgarriak baino gehiago, ikusgarrien inguruan topaketa bat sortu nahi dugu. Fabrikatzen dutenen eta ikusten dutenen eta hunkituak direnen artean. Parkeko ateak idekiak izanen dira 9:00etatik 23:00etara, eta beti norbait izanen da kafe baten eskaintzeko, dute baten, eta menturaz gehiago ere...

---

## Pourquoi une participation libre à partir de 7 euros ?

Parce que tous les artistes invités au festival doivent être rémunérés et le sont. Cette année, ils sont une trentaine à danser, lire, incarner, jouer, chanter, mixer. Hormis la mise à disposition du parc par la Mairie d'Hasparren, La Fabrique Affamée ne reçoit toujours pas, ni aide financière, ni subvention particulière pour organiser le festival En Créations. Et pourtant, elle se bat pour le faire perdurer. Sur ses fonds propres. L'organisation du festival est auto-financée. Oui, nous nous battons pour que le spectacle reste vivant. Et cette bataille se gagnera aussi grâce à vous. Merci !

## Zergatik 7 €-tik goitiko parte hartze librea?

Festibalera heldu diren artista guziak ordainduak izan behar baitira, eta ordaintzen ditugu. Aurten hogeita hamar bat dira dantzatzera heldu direnak, irakurtzera, gorpuztera, jokatzera, kantatzera, musika nahastera. Hazparneko Herriko Etxeak Eihartzeko parkea dohainik uzten digu, baina horrez gain La Fabrique Affamée konpainiak ez du neholako dirulaguntzarik Sorbidean festibala antolatzeko. Alta, ahaleginak egiten ditugu festibalaren iraunarazteko. Konpainiaren diruarekin. Festibalaren antolaketa autofinantzatua da. Bai, borrokan ari gara ikusgarriak bizirik iraun dezan. Eta zuri esker ere da borroka hori irabaziko. Milesker!

# La programmation
# Egitaraua

## SAMEDI 8 JUIN

**19 h : *Vivement Lundi !* – Vivement Lundi !**
Chant Polyphonique à répertoire varié – Tout âge
Entre 30 et 45 min.
*Vivement lundi !* est un joyeux chœur mixte de 25 chanteuses et chanteurs.
Il s'agit d'un ensemble Bayonnais vieux de deux ans, monté par la musicienne **Maylis Raynal** avec l'aide d'Iban Regnier de l'association Bastringues. Le groupe, dirigé par Maylis Raynal, interprète un répertoire varié mêlant musiques traditionnelles d'ici et d'ailleurs, musiques actuelles et improvisations vocales, tout cela via un apprentissage oral.

**20 h 30 : *Bruno et Tonio* – La Fabrique Affamée**
Théâtre acrobatique – À partir de 6 ans – 45 min.
**Écriture et mise en scène : La Fabrique Affamée**
**Avec : Clément Broucke et Nicolas Marsan**
Bruno et Tonio s'aiment. D'une profonde amitié. Bruno est rêveur ; Tonio beau parleur.
Tous les soirs, Tonio lance un défi à son Bruno. Tous les soirs, ils cherchent l'admiration l'un de l'autre.
Ce soir, Bruno sera acrobate. Mais comment faire ?
« Des acrobaties avec ton corps » répondra son Tonio.

## EKAINAREN 8a, LARUNBATA

**19: *Vivement Lundi!* – Vivement Lundi !**
Errepertorio aniztuneko kantu polifonikoak – Denendako – 30 eta 45 minuturen artean
Vivement lundi! 25 kantarik osatu koru misto alaia da. Baionako taldea da, **Maylis Raynal** musikariak duela bi urte sortua Bastringues elkarteko kidea den Iban Regnierren laguntzarekin. Maylis Raynalek du taldea zuzentzen ; kantariek errepertorio aniztuna interpretatzen dute, hemengo eta hango musika tradizionalak, gaurko musikak eta boz-inprobisazioak nahasiz. Hori dena ahoz ikasi dute.

**20:30 : *Bruno eta Tonio* – La Fabrique Affamée**
Antzerki akrobatikoa – 6 urtetik goiti – 45 minuturen
Idazketa eta taula zuzendaritza : La Fabrique Affamée
**Artista hauekin: Clément Broucke eta Nicolas Marsan**
Brunok eta Toniok elkar maite dute. Adiskide minak dira. Bruno ameslaria da, Tonio, ele ederreko gizona. Arrats guziez, Toniok desafio bat botatzen dio bere Brunori. Arrats guziez, batak bestearen mirespena xerkatzen du. Arrats honetan, Bruno akrobata izanen da. Baina nola egin ? « Akrobaziak eginez zure gorputzarekin », ihardetsiko dio bere Toniok.

## DIMANCHE 9 JUIN

***Jazz'Parne***
Après-midi musical sous les arbres

**À partir de 14 h : *La Liseuse de bonnes aventures***
**Compagnie Elle Murmure**
Théâtre/Lecture pour un spectateur
À partir de 15 ans – Présence à la journée, environ 5 min. par spectateur
**Conception et jeu : Claire Grimbert**
Se faire lire la bonne aventure, savoir. Grâce à la lecture d'extraits de la littérature francophone, voyons si les auteurs ont quelque chose à nous dire. Qu'est-ce que leurs textes peuvent venir toucher dans ce que nous sommes aujourd'hui.

**16 h : *Duo Therain-Ratsimba***
Musique, duo voix-guitare – Tout public – 50 min.
**Anne-Iia Ratsimba : voix**
**Alexis Therain : guitare**
Dans un répertoire sur la thématique du blues, ce duo voix-guitare regarde du côté des racines. Une quête de cet ancrage qui permet l'envolée. Les pieds enracinés et la tête dans les nuages !

**18 h : *Je marche et les directions se précisent***
Musique et poème – À partir de 6 ans – 50 min.
**Chant, synthé : Maria Zopounidis**
**Basse, mandoline, synthé : Arthur Rendu**
**Texte, guitare : Arthur Pérot**
« Je marche et les directions se précisent » est la rencontre de trois artistes qui tentent, mêlant la poésie de Mahmoud Darwich avec les chants de tradition orale du pourtour méditerranéen, de raconter l'histoire d'un poète, d'un rêveur qui a oublié son rêve dans son pays d'enfance.

**20 h : *Gori Gori* – Gori Gori**
Musique – Tout âge – 35 min.
**Ainara Gurrutxaga, Ander Fernandez**
Gori Gori est composé de Ainara Gurrutxaga et Ander Fernandez et ils sont là pour vous offrir un cocktail musical détonant, avec une bonne dose de groove sur terrain battu. Une musique qui vous transporte dans un univers où la clarinette rencontre le xylophone, et le synthé secoue la voix. Bienvenue dans notre cirque musical !

## EKAINAREN 9a, IGANDEA

## Jazz'Parne
Musika arratsaldea arbolen azpian

**14: etatik goiti: *La Liseuse de bonnes aventures***
**Elle konpainia Murmure**
Antzerkia/Irakurraldia ikusle batentzat – 15 urtetik goiti – Egun guzian, 5 minutu ikusle bakoitz
**Diseinua eta jokoa: Claire Grimbert**
Norbaitek etorkizuna salatzea, jakitea. Frantses literaturako zatiak irakurriz, ea idazleek zerbait badigutenez errateko? Zer hunki dezakete haien testuek gaur egun garenen baitan?

**16: *Therain* – Ratsimba bikotea**
Musika, boza-gitarra bikotea – Denendako – 50 minutu
**Anne-Iia Ratsimba: boza**
**Alexis Therain: gitarra**
Blues musikaren inguruko errepertorioaren bidez, boza-gitarra bikoteak erroei buruz so egiten du. Erroztatzearen bilaketak goratzea sortzen du. Zangoak lurrean eta burua lainoetan!

**18: *Je marche et les directions se précisent***
Musika eta olerkia – 6 urtetik goiti – 50 minutu
**Kantua, sintetizadorea: Maria Zopounidis**
**Baxua, mandolina, sintetizadorea: Arthur Rendu**
**Testua, gitarra: Arthur Pérot**
“Ibiltzen naiz eta norabideak zehazten dira” ikusgarrian hiru artistak Mahmoud Darwichen poesia eta Mediterraneoko inguruko ahozko tradizioko kantuak nahasten dituzte olerkari baten istorioa kontatzeko, bere ametsa haur denborako herrialdean ahantzi duen ameslariaren istorioa.

**20: *Gori Gori* – Gori Gori**
Musika – Denendako – 35 minutu
**Ainara Gurrutxaga, Ander Fernandez**
Ainara Gurrutxagak eta Ander Fernandezek osatzen dute Gori Gori. Bazterrak harrotzeko musika eskainiko dute, groovez josia. Klarinetea eta xilofonoa elkartzen diren mundura eramanen gaituzte, sintetizadoreak boza inarrosten duen mundura. Ongi etorri gure musika zirkura!

# LUNDI 10 JUIN

**9 h: *Réveil sensoriel* – Atelier Danse**
**Eneka Bordato – Compagnie Dantzalai**
10 euros – Réservation conseillée
Rendez-vous matinal pour se mettre en mouvement à partir de nos sens. Nous profiterons du plaisir d'être dehors, dans la nature pour découvrir nos sensations du moment et jouer avec.

**20 h: *Hartza* – Compagnie Kilika**
Marionnettes – À partir de 9 ans – 20 min. + échange public
**Avec Fabienne Astruc et Damien Calmont**
« Si on te tue, je meurs avec toi ». C'est l'histoire d'une rencontre entre un ours et une fille et à travers elle c'est la question de la place de chacun qui se pose. Comment peut-on danser ensemble? Comment imagine-t-on un ailleurs comme un autre possible ?

## EKAINAREN 10a, ASTELEHENA

**9: Zentzumenen bidezko iratzartzea – Dantza lantegia**
***Eneka Bordato* – Dantzalai konpainia**
10 euro - Hobe erreserbatzea
Goizeko hitzordua, mugimenduan sartzeko gure zentzumenen bidez. Kanpoan izateko plazeraz baliatuko gara, naturan, mementoko sentipenen deskubritzeko eta haiekin jostatzeko.

**20: *Hartza* – Kilika konpainia**
Txotxongiloak – 9 urtetik goiti – 20 minutu + trukaketa publikoarekin
**Fabienne Astruc eta Damien Calmontekin**
«Hiltzen bazaituzte, zurekin hilen naiz». Nola dantza egin elkarrekin? Nola beste leku bat aukera berri bat bezala pentsatu?

# MARDI 11 JUIN

**16 h: La Ferme d'Uhaldia** propose sa distribution hebdomadaire de panier de légumes dans le Parc Eihartzea. L'occasion d'accueillir une nouvelle association pendant le Sorbidean Festibala.
La Ferme d'Uhaldia est une association créée en février 2019. Elle est située Quartier Minhotz à Hasparren et s'étend sur 1,5 hectares dont 1 500 m² de serres.
La mission de la ferme est d'accompagner des personnes en recherche d'emploi vers une insertion sociale et professionnelle. L'apprentissage du maraîchage et l'expérience de la production de légumes biologiques leur ouvrent de nouvelles portes et les accompagnent vers leurs futurs projets professionnels.
Durant la semaine, les salariés de la Ferme d'Uhaldia seront invités à participer à un atelier de découverte de la pratique théâtrale par la compagnie La Fabrique Affamée.

**20 h: *Saxifraga* – Compagnie Rouge Elea**
Voix, musique, danse
À partir de 9 ans – 30 min. + échange public
**Opératrices et interprètes: Joana Millet, Esperanza López, Ander Fernandez, Corine Cella**
Performance-expérience audio et dansée.
Faisant confiance au potentiel de l'expérience avec les autres que soi et les autres qu'humains,

Saxifraga cherche à insuffler une présence au monde dans un pas de côté ; en se mettant à hauteur d'herbe folle et s'appuyant sur les saxifrages, plantes qui poussent dans les failles, comme modèle d'espoir.

## EKAINAREN 11, ASTEARTEA

**16: Uhaldeko etxaldeak** bere asteko barazki saskiak Eihartzeko parkean banatuko ditu.
Elkarte berri baten errezibitzeko parada Sorbidean Festibalean.
Uhaldia etxaldea 2019ko otsailean sortu elkartea da. Hazparneko Minhotz auzoan kokatua da eta 1,5 ha zabal da, 1 500 m² negutegi barne. Etxaldearen eginkizuna lan bat xerkatzen duten pertsonen laguntzea da jendartean eta lan munduan sartzeko. Baratzezaintza ikasten dute, barazki biologikoen ekoizpenean esperientzia biltzen eta horren bidez ateak irekitzen zaizkie eta etorkizuneko proiektu profesionalean laguntzen dira.

Aste guzian Uhaldia etxaldeko langileak gomit dira La Fabrique Affamée konpainiaren antzerki lantegi batean parte hartzera.

**20: *Saxifraga* – Rouge Elea konpainia**
Boza, musika, dantza
9 urtetik goiti – 30 minutu + trukaketa publikoarekin
**Operadoreak eta interpreteak: Joana Millet, Esperanza López, Ander Fernandez, Corine Cella**
Dantza-entzunezko performance-esperientzia
Norberaz besteen eta beste gizakien esperientziaren ahalmenari konfiantza egiten du SAXIFRAGAk, eta munduan izateko manera bat proposatzen hastapeneko bidetik kanpo; belarren heinean ezarriz, saxifragetan bermatuz: arteketan pusatzen den landarea da, esperantza eredua.

# MERCREDI 12 JUIN

**En partenariat avec la Médiathèque Pierre Espil à Hasparren**
***Les Petites Histoires de Madame La Chouette***
Lectures en français – Entrée libre et gratuite
Mme la Chouette, fidèle amie des bibliothécaires de la médiathèque Pierre Espil, s'invite au festival pour vous raconter ses plus belles histoires !
**10 h** pour la petite enfance (18 mois-3 ans)
**11 h** pour les maternelles (3-5 ans)

## Coin lecture

**Un point lecture en libre-service vous est proposé par la médiathèque, pour passer un moment de détente pendant tout le festival !**

**20 h : *Lenteurs* – Compagnie des Syrtes**
Danse – À partir de 12 ans – 30 min. + échange public
**Danse : Jean-Philippe Leremboure**
**Musique : Jean-Louis Hargous**
**Images : Ihintza-Chloë Hargous**
Le poème surgit par intermittence, fulgurances de la pensée, éclats de rêves, de désirs, de peurs, projections intérieures. La danse naît de l'immobile, corps-présence qui enlace, effleure, désire, tour à tour eau, air, racine, éclats de feu, lumières en mouvement. Musique et silence accompagnent le fleuve du temps qui s'écoule.

## EKAINAREN 12a, ASTEAZKENA

**Hazparneko Pierre Espil mediatekarekin partaidetzan**
***Hontz anderearen istorioak***
Irakurraldiak frantsesez – Sartzea libro eta dohainik
Hontz anderea Pierre Espil mediatekako liburuzainen lagun leiala da, eta festibalean ukanen dugu bere istorio ederrenak kondatzeko!
**10:** etan haur ttipientzat (18 hilabete – 3 urte)
**11:** etan ama eskolakoentzat (3-5 urte)

**Irakurketa xokoa**
Mediatekak irakurketa gune bat proposatzen du zerbitzu libroan, atsedenaldia egiteko festibal denboran!

**20: *Lenteurs* – Syrtes konpainia**
Dantza – 12 urtetik goiti – 30 minutu + trukaketa publikoarekin
**Dantza : Jean-Philippe Leremboure**
**Irudiak : Ihintza-Chloë Hargous**
Olerkia arteka agertzen da, pentsamenduaren tximistaren gisa, amets, desira eta beldur ezpala, barne-proiekzioa. Dantza mugitzen ez den hartatik sortzen da; besarkatzen, doi-doia hunkitzen, desiratzen duen gorputz-presentzia da, batean ur, bestean aire, erro, pindar, mugimenduan den argi. Musikak eta isiltasunak iragaten den denboraren ibaia laguntzen dute.

# JEUDI 13 JUIN

**20 h : *Je ne suis pas de celles qui meurent de chagrin***
**Compagnie Urdin**
Théâtre et danse – À partir de 12 ans – 60 min. + échange public
**Interprète : Pasiphaé Le Bras**
**Mise en scène : Juliet Darremont-Marsaud**
**Scénographie : Mélissa Rouvinet**
**Création lumière : Manon Vergotte**
**Création sonore : Gabriel Darremont-Marsaud**
**Production et regard extérieur : Morgan Guillot-Noël**
Écriture et dramaturgie collectives.
Le spectacle présente les vies de femmes de marins par l'écho de leurs témoignages. Devant la mer, nous attendons avec elles, et nous partageons

leurs divagations, leurs engagements et leurs solitudes. Comme ces femmes, l'interprète trace une vie prise dans les mouvements : ceux des bateaux, des vagues, des absences qui rythment le quotidien.

**21 h 30 : *Mouvement nocturne* – Atelier Danse Eneka Bordato – Compagnie Dantzalai**
10 euros – Réservation conseillée
Mouvement nocturne : nous stimulerons les sensations corporelles et l'imaginaire en accompagnant la montée du crépuscule, l'occasion de saluer le soleil en dansant.

## EKAINAREN 13a, OSTEGUNA

**20: *Je ne suis pas de celles qui meurent de chagrin* – Urdin konpainia**
Antzerkia eta dantza – 12 urtetik goiti – 60 minutu + trukaketa publikoarekin
**Interpretea: Pasiphaé Le Bras**
**Taula zuzendaritza: Juliet Darremont-Marsaud**
**Eszenografia: Mélissa Rouvinet**
**Argi sorkuntza: Manon Vergotte**
**Soinu sorkuntza: Gabriel Darremont-Marsaud**
**Ekoizpena eta kanpoko begirada: Morgan Guillot-Noël**
Idazketa eta dramaturgia kolektiboak
Ikusgarriak itsasturien emazteen bizitzak aurkezten ditu haien lekukotasunen bidez. Itsasoaren aitzinean, haiekin beha gaude, ametsetan, haien engaiamenduak eta bakartasuna partekatuz. Emazte horiek bezala, interpreteak mugimenduetan harrapatua den bizia eramaten du: itsasontzien mugimenduak, uhainenak, egunerokoari erritmoa ematen dion senarraren eskasarenak.

**21:30 : *Gaueko mugimendua* – Dantza lantegia Eneka Bordato – Dantzalai konpainia**
10 euro - Hobe erreserbatzea
Gaueko mugimendua: gorputz sentsazioak eta irudimena akuilatuko ditugu iluntzean, eguzkia dantzan agurtzeko parada.

# VENDREDI 14 JUIN

**18 h : *Apéro Tango* – Clément Broucke**
Initiation au tango.
Dans cette initiation, nous aborderons très peu la technique à proprement parlé du tango pour venir se rapprocher et caresser l'essence même du tango : se connecter à l'autre et danser avec le cœur.

**20 h : *Lexique de nos petites et grandes résistances* Compagnie Hecho en casa**
Forme hybride Causerie – Danse – Théâtre interrogeant nos résistances – À partir de 9 ans – 60 min. + échange public
**Mise en scène, en mots et jeu : Hervé Estebeteguy**
**Jeu et danse : Jon Vernier**
**Jeu et musique : Arthur Pérot**
**Jeu : Camille Duchesne et Romain Martinez**
**Regards complices : Diane Lefébure, Viviana Souza et Mélanie Viñolo**
**Administration et communication : Chloé Habasque**
C'est quoi résister ? De quoi sommes-nous capables pour résister ? Résister à quoi, et à qui ? Et faut-il résister ?
Ce spectacle-préambule a pour but de définir le mot « résistance » et d'interroger cette notion par l'intermédiaire du corps sous forme d'expériences, de performances et de démonstrations.
Aucune histoire, ni récit mais plutôt une mosaïque de situations sous la forme d'un lexique. De A jusqu'à Z en faisant quelques bons dans l'alphabet et dans l'Histoire.

**22 h : *No Bars Off* – Nuc (feat. Talo Beez et Love Lola)**
Concert Rap – Tout âge – 40 min.
**Sebastian Manriquez, a.k.a Nuc** est un musicien autodidacte avec plus de 20 ans d'expérience sur les scènes hip-hop chiliennes et françaises. Il est le fondateur du légendaire groupe « Natural Banda ». Professionnel créatif et original, Nuc travaille sans relâche à faire ce qu'il connaît le mieux : rapper !

## EKAINAREN 14a, OSTIRALA

**18: *Aperitifa eta tangoa* – Clément Broucke**
Tangoan hasteko.
Iniziazio horretan tangoaren teknika guti aipatuko da, baina tangoaren esentziaz hurbilduko gara: bestearekin konektatzea eta bihotzarekin dantzatzea.

**20: *Lexique de nos petites et grandes résistances* Hecho en casa konpainia**
Forma hibridoa : Eleketa – Dantza – Antzerkia, gure erresistentziak galdekatzeko
9 urtetik goiti – 60 minutu + trukaketa publikoarekin
**Taula-, hitz- eta joko- zuzendaritza : Hervé Estebeteguy**
**Jokoa eta dantza : Jon Vernier**
**Jokoa eta musika : Arthur Pérot**
**Jokoa : Camille Duchesne eta Romain Martinez**
**Begirada konplizeak : Diane Lefébure, Viviana Souza eta Mélanie Viñolo**
**Administrazioa eta komunikazioa : Chloé Habasque**
Zer ote da ihardukitzea ? Zeren egiteko gai ote gara ihardukitzeko ? Eta zeri ihardukitzeko, nori ? Eta behar ote da iharduki ? Aitzin-ikusgarri horren xedea da « ihardukitze » hitza definitzea eta nozio hori galdekatzea gorputzaren bidez, esperientzia, performance et demostrazio moldean.
Ez da istoriorik ez kontakizunik, baina egoera nahasketa bat lexiko moldean. A-tik Z-raino, alfabetoan eta historian gaindi punpa eginez.

**22: *No Bars Off* – Nuc (feat. Talo Beez eta Love Lola)**
Rap kontzertua – Denendako – 40 minutu
**Sebastian Manriquez, Nuc**, musikari autodidakta da 20 urte baino gehiagoko esperientziarekin Txileko eta Frantziako hip-hop taulagainetan. Natural Banda talde oroigarriaren sortzailea da. Nuc profesional sortzailea da eta originala, eta geldi-geldia lan egiten du hobekienik egiten dakiena egiten : rap egiten !

## SAMEDI 15 JUIN

**Restitutions des ateliers de La Fabrique Affamée**
**16 h : *La Floraison* (atelier théâtre lycéens)**
1er janvier 2054, l'Impératrice Catherine Lapierre vient de prendre le pouvoir en France. Elle met un terme à la démocratie, responsable selon elle du déclin d'un pays fainéant et paresseux.
Les interdictions fleurissent. La dictature s'installe peu à peu. La société se referme. Mais comment réagira le peuple ?

**18 h : *Déréliction* – Les 4 drôles de drames (atelier théâtre adultes)**
Quatre femmes. Seules. Enfermées dans leurs solitudes. Devant nous. Quatre destins teintés d'attente et d'ennui, d'obsessions intimes et de déceptions.
Elles dansent les yeux fermés, écrivent pour survivre, chantent pour se sentir vivantes, font du sport ou des live Facebook pour exister. Oui, comment faire pour exister ?

**20 h 30 : *Une part d'invisible***
**La Troupe de La Fabrique Affamée**
Neuf vies invisibles, oubliées ou effacées ; neuf histoires de départs, de fuites et d'espoirs, de mémoires cassées et de corps abîmés. Mais ce sont neuf vies qui passent de l'ombre à la lumière. Des cendres à la chair. Neuf vies qui vont se tresser.
Et leur invisible va s'éclairer.

## EKAINAREN 15a, LARUNBATA

La Fabrique Affamée konpainiaren antzerki lantegien emanaldia
**16: *La Floraison* (lizeokoen antzerki lantegia)**
2054ko urtarrilaren 1ean, Catherine Lapierre enperatriza boterera heldu da Frantzian. Demokraziari bururapena ematen dio, haren iduriko herrialde alferraren gainbehera eragin duelako. Debekuak loratuz doaz. Emeki-emeki, diktadura plantan ezartzen da. Jendartea hesten da. Baina nola ihardukiko du populuak?

**18: *Déréliction* – Les 4 drôles de drames (helduen antzerki lantegia)**
Lau emazte. Bakarrik. Beren bakardadeetan hetsirik. Gure aitzinean. Lau patu, beha eta enoatzen daudenak, obsesio intimoz eta atsekabez josiak. Dantzan ari dira begiak hetsirik, bizirik irauteko idazten dute, bizirik sentitzeko kantatzen dute, kirola edo Facebookeko zuzenekoak egiten dituzte existitzeko. Bai, nola egin existitzeko?

**20:30 : *Une part d'invisible* (La Fabrique Affamée konpainiako antzerki taldea)**
Bederatzi bizitza ikusezin, ahantziak edo ezabatuak; partitzeak, ihesak, esperantza, oroimen hautsiak, gorputz andeatuak erakusten dituzten bederatzi istorio. Baina bederatzi bizitza, ilunetik argira iragaten direnak. Hautsetatik haragira. Bata besteari lotuko diren bederatzi bizitza. Eta haien ikusezina argituko da.

**Bar et petite restauration tous les jours. Café et thé pour rencontrer les artistes toute la journée. Réservations conseillées pour tous les spectacles :**
**07 68 72 27 71**
**billetterie@ lafabriqueaffamee.org**

**Parc Eihartzea**
81, rue Francis Jammes
64240 Hasparren
**Participation libre à partir**
de 7 euros. À partir de 4 euros pour les moins de 12 ans

**Edariak eta jatekoak egun guziez. Kafea eta dutea egun guzian artistekin topo egiteko Ikusgarrien ikusteko, hobe tokiaren erreserbatzea : 07 68 72 27 71**
**billetterie@lafabriqueaffamee.org**

**Eihartzeko parkea**
Francis Jammes karrika, 81
64240 Hazparne
**Ikusgarrien prezioa**
7 €-tik goitiko parte hartze librea
4 €-tik goitikoa 12 urtez pekoentzat

# Spectacles et horaires
# Ikusgarriak eta tenoreak

| | |
|---|---|
| SAMEDI 8 JUIN<br>EKAINAREN 8a, LARUNBATA | **19 h :** ***Vivement Lundi !***<br>**20 h 30 :** ***Bruno et Tonio*** |
| DIMANCHE 9 JUIN<br>EKAINAREN 9a, IGANDEA | ***Jazz'Parne***<br>**14 h :** ***La Liseuse de bonnes aventures***<br>**16 h :** ***Therain-Ratsimba***<br>**18 h :** ***Je marche et les directions se précisent***<br>**20 h :** ***Gori Gori*** |
| LUNDI 10 JUIN<br>EKAINAREN 10a, ASTELEHENA | **9 h :** ***Réveil sensoriel***<br>**20 h :** ***Hartza*** |
| MARDI 11 JUIN<br>EKAINAREN 11, ASTEARTEA | **16 h :** ***La Ferme d'Uhaldia***<br>**20 h :** ***Saxifraga*** |
| MERCREDI 12 JUIN<br>EKAINAREN 12a, ASTEAZKENA | **10 h, 11 h :** ***Les Petites Histoires de Madame La Chouette***<br>**20 h :** ***Lenteurs*** |
| JEUDI 13 JUIN<br>EKAINAREN 13a, OSTEGUNA | **20 h :** ***Je ne suis pas de celles qui meurent de chagrin***<br>**21 h 30 :** ***Mouvement nocturne***<br>***Eneka Bordato*** |
| VENDREDI 14 JUIN<br>EKAINAREN 14a, OSTIRALA | **18 h :** ***Apéro Tango***<br>**20 h :** ***Lexique de nos petites et grandes résistances***<br>**22 h :** ***No Bars Off*** |
| SAMEDI 15 JUIN<br>EKAINAREN 15a, LARUNBATA | **Restitutions des ateliers de La Fabrique Affamée**<br>La Fabrique Affamée konpainiaren antzerki lantegien emanaldia<br>**16 h :** ***La Floraison***<br>**18 h :** ***Déréliction***<br>**20 h 30 :** ***Une part d'invisible*** |

Nos partenaires
Gure partaideak

PYRENEES ATLANTIQUES LE DEPARTEMENT

Communauté d'Agglomération Pays Basque
Euskal Hirigune Elkargoa

Ville de Hasparren
Hazparneko herria

Radio Kultura.eus

**Conception graphique :**
La Fabrique Affamée
**Traduction / Itzulpena :**
Joana Pochelu
**Photo :** Manon Perez